



ASTEARTEA

2021/05/04
9. urtea, 1.411. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €



LAB sindikatuak larunbat eguerdian egin zuen manifestazioa Tolosan, Triangulotik abiatuta. NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ

Aldaketa beharra nabarmendu dute Maiatzaren 1ean

‘Aldaketa da aukera’ lelopean LABek deitutako manifestaziora herritar ugari batu da; Kontseilu Sozialistak ere mobilizatzeraz deitu zituen gazteak // 3

Bonu berriak jarriko dituzte Tolosan salgai, komertzioari laguntzeko

Suspertu Tolosa kanpaina berria zabaldu du udalak; 20 euroko bonuak eskuragarri daude, eta 240.000 euroko eragina izatea espero dute // 2

«Mundua feminista izatea nahi zuen Kasilda Hernaezek»

AIORA SEDANO
AKTOREA

Zizurkildarraren ibilbidea kontatzen duen antzezlan eskainiko dute larunbatean Zizurkilen, Intxaur frontoian // 5

Jon Ander Peña «oso pozik» dago binakako finalera sailkatu delako

Tolosarrak lehen aldia du lehen mailan; Altuna-Mariezkurrenari 14-22 irabazi diote // 7



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484



Garbiñe Mozo merkataria eta Nerea Letamendia zinegotzia, Trianguloa plazako etxolan, kanpainaren aurkezpenean. J.A.

Komertzio txikia suspertzeko, bonu berriak salgai

Jada eros daitezke Suspertu Tolosa kanpainaren edizio berriko bonuak; 20 euroko bonu bakarra izango da, eta gehienez ere hiru erosi ahal izango ditu herritar bakoitzak

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Oraindik ere pandemiaren eragina nabaria da hiri ekonomia osatzen duten sektoreen eguneroan. Egoera konplexu horri laguntza eskaintzen jarraitzeko asmoz, hainbat neurri hartu ditu aurten udalak, besteak beste, hondakinen tasen %100eko hobera eman zaie herritarrei, eta gauza bera egin da espazio publikoak erabiltzen dituzten ostalari eta azokako ekoizleekin, terrazen eta postuen tasekin.

Orain, berriz, Tolosa biziberri-zen jarraitzeko asmoarekin, Suspertu bonu kanpaina berria jarriko du abian, Tolosa&Co merkatarien elkartarekin elkar-lanean. «Joan den urteko kan-

painak izandako arrakastaren bideari eutsi nahi diogu», adierazi du Nerea Letamendia, Merkataritza, Feriak eta Turismoa sailleko zinegotziak. «Merkataritza eta zerbitzu establezimenduak hauspotzea du helburu, baina baita herrian kontsumitzeko eta tokiko saltokiak babesten jarraitzeko kontzientzia piztea ere», gaineratu du.

Apirilean zabaldu zen kanpaina berriaren parte hartzeko izen ematea, eta Letamendiaren hitzetan, parte hartzaile kopuruari dagokionez, «harrera paregabea» izan du hirugarren edizio honek. «160 saltoki baino gehiagok eman dute izena, iaz baino 20 gehiagok. Lehen edizioan, 140 saltoki inguru izan ziren», azaldu du.

BONU BAKARRA, 8.000 ALE

Astelehenean, hilak 3, abiatuko da bonuen salmenta, 10:30etik aurrera, eta www.suspertutolosa.eus webgunean erosi ahal izango dira, hilaren 15era bitarte edo bonu guztiak agortu arte. Orotara, 8.000 ale jarriko ditu

salgai udalak. Pertsona bakoitzak bonu bakarra erosi ahal izango du saltoki bakoitzeko eta, orotara, gehienez ere hiru bonu.

Bonuak erosi ahal izateko, ezinbestekoa izango da aipatutako webgunean erregistratzea. «Kontuan izan, erregistratzean utzitako NAN zenbaki berarekin egin beharko dela, gerora, bonuaren erabilera, aukeratutako saltokian», gogorarazi du zinegotziak. Bonuak erosi ondoren, posta elektronikora bidaliko dira, eta dendetan erabili ahal izateko inprimatu egin beharko dira. Behin bonuak eskuratuta, herritarrek irailaren 30era bitarte erabili ahal izango dituzte, hautatutako saltoki edo establezimenduetan.

Letamendiak esan du joan den urteko kanpainaren balorazioa iritziak kontuan izan ondoren, «zenbait hobekuntza» txertatu direla aurtengo kanpainan. Esate baterako, aurten ez dira salneurri ezberdinetako bonuak izango. Bonu mota bakarra jarriko da eskuragarri: 20 eurokoa. «Horietako bakoitzari 10 euro

gehituko dizkio udalak, eta erosketa txartelen azken balioa 30 eurokoa izango da», azaldu du.

INFORMAZIO PUNTU BERRIA

Iazko esperientziarekin alderatuta, bada beste hobekuntza nagusi bat. Informazio puntu bat jarriko da Trianguloa plazan, erosketa prozesuan laguntza behar dutenei arreta eman ahal izateko edo erosketa *online* egiteko baliabiderik ez dutenengana iristeko. «Bonuak fisikoki erosi ahal izango dira, baita *online* erositakoak inprimatu ere. Dena dela, eta bizi dugun egoera ikusita, *online* egiteko moduan direnek, bide hori hobetsi dezatela eskatzen dugu», esan du Letamendiak.

Erosketa prozesuan arazorik izanez gero, bi komunikazio aukera zabaldu ditu udalak; bate-tik, info@suspertutolosa.eus helbide elektronikoa; bestetik, 943 697 454 telefono zenbakia, 10:30etik 13:30era.

ETORKIZUNERAKO LANKIDETZA

Zinegotziaren hitzetan, oraindik «beharrezkoa» da tokiko saltokiei «gure babesa eta laguntza ematea», pandemiaren ondorioei «elkarrekin» aurre egiten jarraitzeko. «Baina era berean, etorkizunera begirako erronkei aurre egiteko lanean ari gara, Tolosarentzat eta tolosarrentzat garrantzia handiko sektorea delako, saltokiek herriari bizia ematen diotelako, eta indarrak batzea funtsezkoa da orain, baina baita etorkizunean ere», nabarmendu du.

Letamendiak orain artean egoerara egokitzeko merkataritza sektoreak egindako ahalegina eta lana nabarmendu nahi izan du, eta «eredugarriak» izan direla azpimarratu du. «Etorkizunean ere, Tolosa aire libreko merkataritza gune indartsua izatea nahi dugu», esan du.

Bonu berrien salmentarekin, iazko kanpainarekin eta saltokien izen-ematearekin adina arrakasta izatea da udalaren helburua, eta horretarako, Letamendiak tokiko establezimenduak babestera deitu ditu herritarrek. «Kanpaina hau baliabide publiko eta pribatuen lankidetzat bat da; udalak 90.000 euro bideratu ditu, iaz baino 10.000 euro gehiago, baina herritarren parte hartzea eta babesa ezinbestekoa da, inpaktu ekonomiko handiagoa sortzeko», aitortu du. Horrela, bonuen salmentari esker, Tolosako komertzio txikia suspertzeko, gutxienez, 240.000 euroko inpaktu ekonomiko sortzea aurreikusten du udalak.

Asteburuan 36 positibo zenbatu ondoren, zazpi herri daude eremu gorrian

Kasuek behera egin arren, Alegiak, Amasa-Villabonak, Anoetak, Asteasuk, Ibarrek, Tolosak eta Zizurkilek itxita jarraituko dute

Erredakzioa

Astelehenero bezala, herriz herriko asteburuko positibo kasuen kopuruen berri eman zuen atzo, Osasun sailak. Datuen arabera, 8.363 test diagnostiko egin zituzten igandean, eta horietatik, 506 (%6,1) positiboak izan ziren. Tolosaldean, 12 positibo izan ziren egun horretan: Tolosan 8 eta Altzon, Amezketan, Berastegin eta Ibarra bana.

Larunbatean 8.120 test egin zituzten, eta 585 (%7,2) izan ziren positiboak. Eskualdean, 8 kasu berri atzeman zituzten: Tolosan 5 eta Alegian, Anoetan eta Ibarra bana. Ostiralean 11.349 test egin zituzten, eta 769 (%6,8) izan ziren positiboak. Tolosaldean 16 positibo izan ziren: Tolosan 6, Amasa-Villabona 5, Anoetan 2 eta Alegian, Altzon eta Ibarra bana.

Osasun eremuei begiratuta, denak gorrian daude: Alegiakoa (551), Ibarreakoa (624), Tolosakoa (614) eta Villabonakoa (901), baita Tolosaldeko ESIA (624) ere. Ospitaleen egoerari dagokionez, COVIDaren ondorioz 45 pertsona ospitaleratu zituzten igandean. Denera 520 pertsona daude ospitaleetan, eta COVIDa duten 195 pertsona ZIUn daude.

ELDUAIN ETA IRURA ATERA DIRA

Tolosaldeko zazpi udalerrri daude une honetan eremu gorrian Osasun sailak kaleratutako zereendaren arabera. 5.000 biztanletik gorako Amasa-Villabonak eta Tolosak jarraitzen dute, euren azken hamabost eguneko intzidentzia tasak 400etik gora jarraitzen baitu, 828 eta 654koa dute, hurrenez hurren.

5.000 biztanletik beherako herrietan, berriz, Elduain eta Irura atera dira, eta Alegiak, Anoetak, Asteasuk, Ibarrek eta Zizurkilek jarraitzen dute. Alegian 5 positibo izan dira azken zazpi egunetan, eta 1.001eko tasa dute. Anoetan, 23 positibo izan dira, eta tasa 1.625eko da; Ibarra, 11 positibo eta 812ko tasa; eta Zizurkilen, 9 positibo eta 955eko tasa.

Maiatzaren leko deialdietan ehunka herritar batu dira

LABek deituta 'Aldaketa da aukera' lelopean manifestazioa egin zuten larunbatean; kontseilu sozialistak ere mobilizatzen deitu zituen gazteak

Naiara Roldan de Aranguiz

LAB sindikatuaren deialdiari erantzunez, larunbatean, Maiatzaren Lehenean, ehunka herritar bildu ziren Tolosako Trianguloa plazatik abiatuta egin zen manifestazioan. *Aldaketa da aukera* leloarekin bat eginik, gatazka guztiei indarrez erantzuteko nahia azaldu zuen LABek, greba orokorraren aukera mahai gainean jarri.

Hala, gizarteak oro har dituen konpondu gabeko auzien zerrenda agerian utzi zuten leloak ikusi ziren: «Zaintza, lana, bizitza, herria!». Aldarrikapen ugari luzatu zituen LABek mobilizazioan, eta horien artean, emakumei zein pentsionistek luzatuta-

ko keinu bereziak izan ziren: «Sektore feminizatueta emakume guztiei, esentzialak ezinbestekoak zarete, bada garaia zuen lanaren balioa aitortu eta soldatak eta lan baldintzak duintzeko», esan zuten. Pentsiodunen mugimendua, berriz, «eredugarritzat» jo zuten, eta beraiei zuzendutako pankarta propioa zabaldu zuten: «Pentsio sistema propioa» eskatuz.

Zaintza lanen aitorten eskaerarekin batera, eskualdeko auzi nagusia presente egon zen Maiatzaren Lehenean: osasun sistema publiko propioa. Honela, LABeko ordezkariak «Asuncion klinika publikatu, lanpostuak bermatu» aldarrikatu zuten, beste behin ere.

GAZTEAK ERE, KALERA

Tolosaldeko Kontseilu Sozialistak deituta ere, manifestazioa egin zuten larunbat iluntzean, Trianguloa plazatik abiatuta. Antolatzaileen esanetan 300 pertsona inguru bildu ziren bertara.

Pandemiaren eraginez, langileen «egoera latzak biderkatzen» ari direnez konponketarako bidea proposatu zuten Tolosaldeko Kontseilu Sozialistako kideek: «Gizarte antolamendu kapitalista gainditu eta klaserik gabeko jendartera eraikitzea». Honela, larunbateko manifestazioa baliatuta, Langileen Nazioarteko Eguna, «antolakuntza komunista indartzeko egun» moduan definitu zuten.



Goian, LAB sindikatuak larunbat eguerdian Tolosan deitutako manifestazioko une bat. Behean Kontseilu Sozialistak antolatutako ekitaldiko unea. N.R.A./K.S.



TALDE FEMINISTA AURKEZTU DUTE

Irura Moretuz talde feminista aurkeztu zuten igandean, San Migel plazan. Dantza, musika eta antzerkiak alaitutako ekitaldia egin zuten, eta amaieran, talde berriaren alde topa egin zuten. Emakumeen ikusgaitasuna eta ahalduz bultzatzeko eta indarkeria matxistaren aurka indarrak batzeko helburuarekin sortu da taldea, eta hemendik aurrera Iruran gizon eta emakumeen arteko parekidetasunaren alde borrokatzeko tresna izango da. LEYRE CARRASCO



ELDUAINGO UDALA

IRAGARKIA

2020ko maiatzaren 25ean egindako ohiko bilkuran, Udaltzarak Elduaingo udaltxean dagoen Kontzeju tabernaren zerbitzua arautuko duen baldintza ekonomiko administratibo berezien plegua onartu zuen, zerbitzu honen lizitazio irekiaren deialdia egiteko.

1. Esleitzaila.

a) Erakundea: Elduaingo Udala.

b) Espedientea tramitatzen duen arloa: Idazkaritza-Kontu-hartzailtza.

2. Kontratuaren xedea.

a) Elduaingo udaltxearen azpiko solairuan dagoen Kontzeju Taberna izenez ezagutzen den jatetxe-taberna zerbitzua eta ustiaketa, emakida administratibo izaeraz esleitzea. Egoitza eta zerbitzua segidan azaltzen diren elementuek osatzen dute: Sukalde hornitua, jantokia, taberna, biltegia, komuna publikoak eta etxebizitza.

3. Tramitazioa eta esleitzeko prozedura.

a) Tramitazioa: Arrunta.

b) Prozedura: Irekia.

4. Kanona hileko: 150 € (BEZ a kanpo).

5. Bermeak.

a) Behin-behinekoa: 1.000 €.

b) Behin betikoa: 1.000 €.

6. Agirien aurkezpena.

Iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasitako hamabost laneguneko epean.

Lizitazioan parte hartzeko betebeharrak, utzi beharreko bermea eta gainerako argitasunak, onartutako pleguan jasotzen dira, Elduaingo Udalaren bulegoetan interesa izan dezaketen pertsona guztiei pleguaren kopia banatu eta xedutakoaren berri emango zaielarik, eskeintza ekonomikoaren eredu orriarekin batera.

Elduain,

2021eko apirilaren 19an.

Alkatea

Oihana Amundarain Zubillaga.

(2704)



Hernandorenako Azkue, Urruzola alkatea eta Amenabar alkateordea aurkezpen ekitaldian. J.M.



Zizurkilgo iparraldeko eremuan dauden mugarrak bisitatu zituzten herritarrek igandean. ATARIA

Mugarriak ezagutuz

Zizurkilgo kultura batzordeak, urtero bezala Maiatza Saltsan izenarekin, egitarau oparoa antolatu du herriko eragileekin batera; mugarren inguruko lanketa izango dute ardatz

Jon Miranda Zizurkil

Mugarrien inguruan ardatz dute aurtengo Maiatza Saltsan ekimena Zizurkil. Iaz, osasun egoeratik bertan behera utzi behar izan zuten egitaraua eta ordurako pentsatuta zeukaten gaia berreskuratu dute datozen asteetan gauzatzeko. Muga eta harriak aitzakiatzat hartu eta horren bueltako ekitaldiak antolatu ditu Zizurkilgo kultura eta euskara batzordeak herriko hainbat eragileekin laguntzaz.

Teodoro Hernandorenak kultur elkarteari «miresmena» adierazi dio Iker Urruzola alkateak eta egiten duten lana eskertu die elkarreko kideei. Herriko mugarrak bilatu, dokumentatu eta berreskuratzeko lana egiten ari da Hernandorenak elkarrekin Aranzadi zientzia elkarteko Yoseba Alonso eta Jabi Castoren laguntzaz. «Benetako harribitxiak topatu ditugu eta paraje ederrak ezagutu, zizurkildar askok ezagutzen ez dituzten txokoak», esan du Joxin Azkue Hernandorenak kultur elkarreko kideak.

Hain zuzen, mugarrak ezagutzeko bi ibilaldi antolatu dituzte egunotarako eta igandean egin zuten lehena. Azkueren esanetan, Usurbilekin muga egiten duen eremuan daude «harribitxi» horietako batzuk. «Andatzan egiten dute muga bi herriek, eta geologikoki berezitasun bat badu eremu horrek. Usurbilgo isurian harri klase bat badago errotarriak egiteko oso ona dena. Lur eremu hori Orreagako monasterioaren eskuetara erori zen eta berehala

hasi ziren gatazkak Orreaga eta zizurkildarren artean, herri lurrak zirelako haiek eta herritarrek ganadua bertara botatzen zutelako. Egoera argitzeko ebazpen bat etorri zen 1389an eta bertan finkatu zen non jarri behar ziren Zizurkil eta Orreagako lurren arteko mugak. Muga horiek bereizteko mugarrak Orreagako bakulua daramate zizelkatuta.

Gaur egun oraindik ere irauten dute mugari horietako batzuk eta herritarrek bertatik bertara ikusi ahal izan zituzten igandean. Aipatutako ebazpenaren berri ematen duen pergaminoaren aurrean eman dute egiten ari diren lanaren berri Hernandorenak elkarreko kideek eta udal ordezkariak. Azkuek aipatu du pergamino horren historia: «Aranzadi zientzia elkartekoek Orreagan, hemen dugun Zizurkilgo dokumentu honen bigarren parte topatu zuten eta frogatu ahal izan zuten biak osagarriak direla. Izugarritzko altxorra da, 1389. urtekoa».

Bigarren ibilaldia maiatzaren 15ean egingo dute, herriko hegoaldeko mugetan zehar. Villabona aldeko 10 mugarrak bisitatu dituzte eta aurreratu dutenez «eroso eta familiarrean» egiteko ibilaldia izango da. Irteera berreskuratu berri duten Laumugarrietako mugarririk pasako da.

EGITARAU OPAROA

Maiatza Saltsan egitarauaren barruan, herriko eragile guztiek elkarrekin antolatzen duten egun bat egoten da urtero, aukeratutako gaiaren inguruan prestatzen

duena. Aurten, maiatzaren 23an, ibilaldi gidatu-antzeztu bat egingo dute herrian barrena. Maite Amenabar kultura eta euskara zinegotziak aurreratu ditu ekimenaren gakoak: «Unai Mendizabal bertsoariak egingo ditu gidari lanak eta hasieran eta bukaeran Bukalai dantza taldeak hartuko du parte. Mugarrak direnez aurtengo gaia, mugak eta harria izango ditugu protagonista. Ibilaldia Akezko errotan hasiko da eta eragile batek han eman ditzoa eskainiko du; handik hilerria joango gara bertan dagoen harrizko gurutzera; udaletxean jarrita dagoen Urkamendiko hilarririk osteratxoa egin ondoren, Donemiliaga dorretxean eta Zimiterioan bukatuko dugu paseoa. Geldialdi bakoitzean eragile bakoitzak saiotox bat eskainiko du».

Amenabarrek xehatu du aurtengo egitaraua eta arreta berezia jarri du emakumeekin lotuta dauden bi emanalditan. Maiatzaren 8an *Kasilda*, *bukatzen ez den sua* antzezlan eskainiko dute Intxaur frontoian. «Aurrestreinaldiaren ondoren, antzerki taldekoek lehenengo emanaldia Zizurkil eskaini nahi zuten eta guk Maiatza Saltsan baliatu dugu horretarako».

Aurten, osasun egoeratik, Aiztondo bailarak El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen duen senidetzea ospatzeko ekitaldiak mugatuta egin behar dira. Dena den, maiatzaren 29rako, *Emakumeak* izeneko proiektzioa eta dantza emanaldia prestatu dituzte.

MAIATZA SALTSAN 2021

Maiatzak 6, osteguna

18:00. Ane Labakaren *Algara muti-latuak* liburuaren inguruko euskarazko literatura solasaldia, idazlea bertan dela eta Oihana Iguaranek dinamizatuta.

Maiatzak 7, 14, 21 eta 28

18:30 – 20:30. Danena Txirindularitza taldeko kideek tailerrak eskainiko dituzte maiatzeko ostiral guztietan. 12 pertsonako taldeak osatu dira, gehienez, eta aurrez eman behar dira. Tailer bakoitzeko 5 euro ordaindu behar dira eta lau tailerretan parte hartuz gero 15 euro. Bizikletaren mantenua eta transmisioa, balaztak, gurpilak eta direkzio eta suspentsioa landuko dira.

Maiatzak 8, larunbata

19:45. Intxaur frontoian *Kasilda*, *bukatzen ez den sua* antzezlan eskainiko da. Hiru euro balioko du sarrerak.

Maiatzak 11, asteartea

18:00. Monica Leivak gidatuta gaztelaniazko literatura solasaldia izango da Plazida Otaño liburutegian. Yoko Ogawa idazlearen *La formula preferida del profesor* liburua aztertuko dute.

Maiatzak 12, asteazkena

18:30. Kontalari2 taldearen ipuin kontaketa saioa Plazida Otaño liburutegian.

Maiatzak 15, larunbata

10:30. Zizurkilgo mugarrak ezagutzeko irteera Villabona aldera. Joxe Arregi plazatik irtengo dira.

Maiatzak 16, igandea

11:00. Herrigunean Zizurkilgo XXI. Biatloia egingo da. Adin guztietako umeek parte hartu ahal izango dute eta ume bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa eraman behar dira.

Maiatzak 22, larunbata

17:00. Infernuren aldeko pala txapelketa ez-mistoaren kanporaketa saioa egingo da Intxaur frontoian.

Maiatzak 23, igandea

Zehazteke. Herriko txoko bereziak ezagutzeko ibilaldi gidatu-antzeztua egingo da herriko hainbat eragileren eskutik. Joxe Arregi plazatik abiatu eta Herrigunera iritsiko dira.

Maiatzak 28, ostirala

Zehazteke. Danena futbol taldean izena eman nahi duten 2010, 2011, 2012 eta 2013an jaiotako gaztetxoentzat atere irekien jardunaldia Danena futbol zelaietan.

Maiatzak 29, larunbata

19:30. El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin Aiztondok duen senidetzea ospatzeko ekitaldia. El Salvadorren abortu delitua egotzita espetxeratu dituzten emakumeak gogoratzeko eta omentzeko *Emakumeak* dokumentala eta dantza emanaldia, **Egun osoan.** Tolosaldeko Bertso Eskolen Eguna ospatuko da Zizurkil.

Ekainak 3, osteguna

11:00. Zizurkilgo Intxaur frontoian Infernuren aldeko pala txapelketa ez-mistoaren finala.



ATARIA

«Kasilda 14 urte ingururekin hasi zen eskubideen alde borrokan»

AIORA SEDANO AKTOREA

'Maiatza saltsan' egitarauaren barruan, Kasilda Hernaezen inguruko antzezlan bat eskainiko du Goitibera konpainiak, Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan, larunbatean, 19:45ean: 'Kasilda, bukatzen ez den sua'

Irati Saizar Artola

Kasilda Hernaez 1914an jaio zen, Zizurkilgo Fraisoro etxean. Emakume iraultzailea izan zen, eta bizitza osoa eman zuen emakumeen eskubideen eta askatasunaren alde borrokan. Bere ibilbidea bere paperetik kontatuko du Aiora Sedano aktoreak (Bilbo, 1982), larunbatean, Kasildaren jaioterrian. Oholtza gainean, Ander Basaldua eta Leire Orberekin batera ariko da.

Kasildaren papera antzeztzen duzu. Nor da Kasilda?

Guda garaian ibili zen emakume iraultzailea da, emakumeen alde

borrokan aritu zen emakume bat. Bere historia kontatzeak benetan merezi du.

Nolakoa zen?

Mundua feminista izatea nahi zuen, emakumeok gizonezkoen eskubide berdina izatea, eta horren alde borrokatu zuen. Gizarte eta langile mugimenduetan parte hartu zuen.

Ohikoa zen hori, garai hartan?

Baziren emakume batzuk, bai, nahiz eta guk guztien izenak ez jakin. 14 urte ingururekin hasi zen Kasilda eskubideen alde borrokan. Bere familia ez zen politika munduan gehiegi mugitzen, baina bera borroka horretan

murgildu zen, eta aurrera egiteko borrokatu edo borrokatu egin behar zuela ikusten zuen.

Antzezlanean, bere ibilbidea, bere ideiak kontatzen dituzue?

Hiru aktorek konpartitzen dugu oholtza eta Kasildaren historia kontatzen dugu. Bide batez, bere inguruan ibili ziren pertsonak ere presente ditugu: besteak beste, Manuel Chiapuso eta Felix Likiniano. Bere bizitza dago antzezlanaren oinarrian.

Antzezlanari abiapuntua 1934ko grebarekin eman diozue.

Hortik abiatzen gara bai, baina kontatzen dugu baita ere 1914an jaio zela Zizurkilgoan, eta gero bere gaztaroa Donostiako Egia auzoan pasatu zuela. Bere nondik-norakoan berri ematen dugu.

Memoria historikoaren ariketa bat egin nahi izan duzue?

Saioa Iribarren zuzendariak eta Ander Basalduak eman dute antzezlan aurrera, eta biak ibili dira han eta hemen antzezlan osatzeko Kasildaren inguruko informazioa biltzen.

Oholtza gainean historia kontatzea lan erraza al da?

Zati asko ditu antzezlanak. Nik ez dut Kasildaren papera soilik egiten. Narratzaile batzuk ere badaude, beraz, gure azaletik kontatzen dizkiogu gauzak publikoari. Pertsonaia gehiago sartzen dira, historia ondo kontatu ahal izateko pertsonaia gehiagoren laguntza behar izaten dugu. Istorioa, hasieratik bukaerara, ez da narratiboa. Tarteetan moztu egiten da.

Antzezlanean umorea ere erabiltzen duzue. Historia umoretik ere konta daiteke?

Baditu puntu batzuk publikoari arnasa hartzen laguntzen diotenak. Izan ere, hainbat pasarte oso gordinak dira, Kasildak kartzelan eman zituen urte batzuk eta hori agertzen da, esaterako. Badakigu gerran emakumeok askotan pairatzen ditugunak ez direla gizonezkoek pairatzen dituzten berdinak. Hori ere erakusten dugu.

Nolako eszenografia duzue?

Irudia asko aldatzen dugu. Eguerezko elementu batzuk ditugu

oholtzan, eta horiek kokatzen ditugun moduaren arabera, eta argiari esker, oso irudi politak eta indar handikoak sortzen dira. Ez da behar garrasi bat, irudi horrekin bakarrik zenbait gauza ikusi egiten dira. Eszena batetik bestera, gainera, guk aldatzen ditugu elementuak. Momentu batean, tren bat irudikatzen dugu, kamioi bat ere ikusten da, espetxea, barrikadak...

Obraren izena 'Kasilda, bukatzen ez den sua' da. Kasildaren surik ez da itzaltzen?

Esaldi hori Kasildaren hilarrian jarrita dago, Biarritzen. Hortik

«Emakumeen eskubideen alde borrokan aritu zen emakumeetako bat da Kasilda Hernaez»

hartu dugu guk ere antzezlanaren izena.

Pertsonaia historiko baten inguruko antzezlan da zuena. Aurretik informatuta egotea garrantzitsua da?

Bai, noski. Horrela, badakizu zer kontatzen ari zaren. Gidoia jaso eta entseguekin hasi ginenean, zuzendariak esan zigun ez genuela testua hitzez hitz ikasita eduki behar, behin probak egiten hasita aldatu egingo zela eta. Halaxe gertatu zen, eszenografia mugitu egiten da eszena guztietan eta horren arabera, kontatu beharrekoa bata edo besteak esan, batzuetan berdin dio. Hor-taz, oso ondo dakigu istorioa nola gertatu zen, eta nolabait esateko, guztiaren kontrola dugu.

Eibarren estreinatu berri duzue antzezlan. Zer moduzko harrera izan du?

Dagoen egoerarekin, gauzak ezin dira ganoraz estreinatu. Sopenan egin genuen aurre estreinaldia, eta ondoren Eibarren egin dugu lehen saioa. Eibar, ordea, perimetralki itxita zegoen, eta ez zen jende gehiegi gerturatu, baina, hala ere, antzezlan amaitzean jo zuten txalo zaparradarekin geratzen gara.

Asteburu honetan Kasildaren jaioterrian arituko zarete. Berrezia izango da?

Bai, noski. Niretzat ere hala izango da, nik interpretatuko dudalako Kasilda. Kasildak ez zuen euskaraz hitz egiten baina antzezlan euskaraz da. Ni bizkaitarra naiz, eta ahalegina egin dut gipuzkoarrok hitz egiten duzuen bezala hitz egiteko. Saiatu behintzat egiten naiz, batzuetan alde egiten dit hitzen batek, izan ere, oholtzan kontuan hartzeko gauza asko izaten ditugu.

«Gu eskaintzen diguten guztirako prest gaude»

JON ARANBURU MUSIKARIA

Jon Aranburu alegiarra da Gasteizko Konpost taldeko kideetako bat; duela lau urte elkartzen hasi, eta pare bat hilabete da diskoa argitaratu dutela; Rock testuinguruan kokatu du taldea Aranburuk

Asier Imaz / Eneritz Maiz Alegia

Konpost musika taldeak diskoa kaleratu du, eta taldeko kide da Jon Aranburu alegiarra. Aspaldian erabat gasteiztartuta bada ere, bere herrian kontzertu bat gustura emango lukeela aitortu du. Nahi baino gutxiago bisitatzen badu ere, herriak beti tiratzen duela dio.

Nolatan edo nondik sortu zenuen Konpost taldea?

Duela lau bat urte edo sortu genuen taldea. Ez ginen elkartu musikarengatik. Kaletik elkar ezagutzen genuen lagunak gara Ruben eta ni behintzat, eta Txerra eta Bingen bistaz ezagutzen nituen. Elkartu eta zerbait egitera animatu ninduten; ikusita Bingen -Mendizabal- musikari aski ezaguna eta Txerra -Bolina- beste hainbeste eta Ruben -Sanchez- saltseroa, animatu egin nintzen taldeko kide

izatera. Beti izan gara geldirik ez egotekoak, pixkana hasi ginen lauron artean jotzen, eta hortik sortu zen konexio musikala eta hortik hasi ginen kantuak egiten. Eta, horrela, gaur arte.

Kantuek bueltaka denbora bat badaramate, ezta?

Gehiegi ez nuke esango, baina bai. Duela lau bat urte hasi ginen kantuak sortzen eta gauza asko pasatzen dira tartean. Ez diogu gure denbora guztia musikari eskaintzen. Tartean ere bestelako kontuak sartzen dira, eta gauza batzuk atzeratu egiten dira eta beste batzuk azkartu. Duela pare bat urte erabaki genuen grabatu egin behar genuela, eta azkenean gure lokalean erabaki genuen Joseba B. Lenoir-ekin egitea. Tartean istripu batzuk izan ziren, eta besteak beste, pandemia bat etorri zitzaigun eta horrek ere atzeratu egin zigun. Hala ere, aurrera egitea erabaki genuen eta diskoa atera dugu. Ez dakit



Jon Aranburu eskuinean, taldeko gainerako kideekin. MIKEL BURUAGA / ALEA

momenturik onena den disko bat kaleratzeko, salmentari dagokionez eta batez ere kontzertuak emateko. Guri batez ere bigarrena axola zaigu, eta ez nahi hainbeste, baina ari gara zertxobait egiten.

Taldearen izenak Alegiara eramaten gaitu.

Alegiara edo gasteiztartutako beste alegiar batengana. Ideia gurea zen, eta ez genekien forma nola eman. Post izango zuela bagenekien mundu honetan bizi dugun egoeratik. Musikan dena post da, gero post egia dago, dena post dugula ematen du, eta postureoa ere galanta, eta post Aiete ere bai. Aurretik mila gauzetan ibilitako jendea garen, guk ere post behar genuen. Ez genekien zein buelta eman, eta anaiak esan zidan, zergatik ez diozue konpost jartzen? Gustatu zitzaigun, eta hortxe.

Post hori zer da nekearen seinale edo berrikuntzarako gogo?

Dudarik gabe berrikuntzarako gogo. Musika eta musikatik kanpo ere mila lekutan ibilitakoak gara. Egoera hau tokatu izan

ez balitz, izan egoera politiko, dena gainditutakoa... agian ez ginateke elkartuko. Horrek bultzatu gintuen juntatzera, aldaketa gogo batek ere bai; bai musika eta baita beste mundu batzuetan ere, eta taldekide bakoitzak gure motibazio ezberdinak ditugu. Gu aurrekoaren ondorengoak gara, eta bistakoa da, eta beraz, post jarri dugu txiste txiki bat eginez.

Kantuekin txisteek ere badutela lotura.

Taldeko abeslaria den Rubeni galdetzea hobe da, baina umorea beti da garrantzitsua guretzako eta baita ironia ere. Letretan Rubenen estiloa horrelakoa da. Denei bezala barre egitea asko gustatzen zaigu.

Zein da zuen musika estiloa?

Musikari bati galdetzen zaionean inoiz ez da erantzun garbirik jasoko. Oso zaila da esatea, eta guretzako are eta zailagoa. Kanpotik ematen da normalean etiketa, eta askotan musikaria ez da ados egoten horrekin. Gure kasuan rock testuinguruan mugitzen garela esango nuke, batez ere, gitarra elektrikoak eta dis-

tortzioak daudelako tartean, eta bateria bat dagoelako, baina ez dago baxurik. Biolin bat da jotzen duena, biolin berezi bat baxuaren soinuak egiten dituen. Horren inguruko zerbait dela esango nuke.

Kontzertuetarako prest?

Gu eskaintzen diguten guztirako gaude prest. Egoera da ia guretzako aldagaririk txikiena. Mila esperimendu egin izan ditugu. Diskoa aurkeztu dugula ez dira bi hilabete, eta orain formatua erabat aldatuta eskainiko dugu kontzertu bat. Akustikoan ari gara probatzen eta hori ere guretzat beste esperimendu bat izan da. Hori bai izan da egoera honek bultzatutakoa.

Noiz izango da kontzertua?

Bilbon joko dugu hilaren 9an, igandean, Bilboko Biran. Aurrekoa, martxoan, Gasteizko Jimmy Jazzen egin genuen diskoaren aurkezpenean, eta orain kontzertuak atera zain gaude. Eta gustura joko genuke Tolosaldea inguruan ere. Nik oso maitea eta kuttuna dut Alegiako Gaztetxea, baina badakit egoera honetan ez dela erraza.

Hilberriak eta urteurrenak



Gorka Legorburu Katarain

Maiatzaren 1ean hil zen 39 urterekin.

- Goian bego -

“Irribartsu, alai eta goxo ezagutu zaitugu, zailtasunen aurrean ausart eta indartsu. Agur esateko unea iritsi bada ere, gure bihotzean eramango zaitugu”.

ZURE FAMILIA

ORMAIZTEGIn, 2021eko maiatzaren 4an.



Rosa Aranburu Etxaide

Minbizi zitalak eraman du isilean, zure irribarrea, Rosa. Gugan bizirik zure memoria; tori krabelina eta arrosa

Kuadrilakoak

ZARAUTZEN, 2021eko maiatzaren 4an

atarian jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzeran DOAN

ESKELAK

ataria@ataria.eus •

Tel.: 943-65 56 95

Asteleheneetik asteazkenara

18:30ak arte hartzen ditugu •

Ostegunetan 11:30ak arte

hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2021EKO MAIATZAK 04
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



MENDE BETEKO HISTORIA

Azken egunetan 100 urte edo gehiago bete dituztenen urtemugak izan dira gurean. Pasa den asteartean 100 bete zituen Maria Juaristi tolosarrak (goian). Olatz Peon alkatearen bisita jaso zuen eta, lore sorta oparitu zion, tolosar guztien izenean zorionduz. Hurrengo egunean, 101 bete zituen Paulina Mugika Esnaola bidaniarrak (erdian). Agurtzane Zelaia alkateak eta Iban Muñoa zinegotziak bisita egin zioten, eta herri guztiaren izenean lore sorta eta tarta oparitu zizkieten. Herenegun, berriaz, 105 urte bete zituen, Oliva Mariezkurrena igoar berastegiartuak (behean). Amaia Azkue alkatearen bisita jaso zuen, eta lore sorta bat oparitu zion, udalaren izenean. ATARIA

ASTEARTEA 04

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Natura Turismoa eta Iraunkortasunaren inguruko IX. Jardunaldiak, 09:30ean hasita, Topic-en.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
15:00. Elkarrizketap Iban Arantzabal
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Irura Moretuz taldearen aurkezpena

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
15:00. Letren errepublika. Literaturari buruzko saioa.
16:00. Zebrabidea. Magazina.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. I. Olarreaga. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

ZORION AGURRAK



Urte askoan Gari!

Lizartatik maite zaituztegu!
 Aitor, Gari, Jon... Denak etxera.
 Askatasuna!

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
 Tolosa

ZORION AGURRAK



Urte askoan

Zorionak Xabier.
 Muxu potolo bat gure ausart handiarentzat!